



DBH 1A



Zer getatuker litzateke?





AURKIBIDEA



IPUINAK

ZER GERTATUKO LITZATEKE...

1. Erromatar inperioak boterea galdu eta enperadore batengatik bizirik iraun balu?
2. Erromatar inperioa erori ez balitz?
3. Kolonek ez balu Amerika aurkitu?
4. Kristobal Kolon Amerikara heldu ez balitz?
5. Kolonek Amerika ordez Australia aurkituko balu?
6. Romulo Augusto enperadorea izango ez balitz?
7. Amerikara Elkano iritsi izan balitz?
8. Sua asmatu ez balitz?
9. Amerika aurkitu ez balitz?
10. Metala asmatu ez balitz?
11. Sua asmatu ez balitz?
12. Metalik gabe?
13. Zeramika edukiko ez bagenu?
14. Armak ez balira existituko?
15. Erdi Aroan metalik gabe?
16. Metala inoiz existituko ez balitz?

ZER GERTATUKO LITZATEKE ERROMATAR INPERIOAK BOTEREA GALDU ETA ENPERADORE BATENGATIK BIZIRIK IRAUN BALU?

-Kaixo, aitona!

-Kaixo, Martin, nolatan zu hemendik?

-Zure laguntza behar dut ikastolako lan baterako; Ba al dakizu Historiari buruzko istorio bat?

-Bai noski! Nola ez dut ba jakingo!

-Kontatuko?

-Ados.

ASCOLI k.o 416.urtea

Bazen behin Nicola izeneko mutiko bat, Nicola Rossi. Nicola familia xume batean jaio zen Ascolin, Italian, non garai hartan idazkera sistemak garatzen hasi ziren, astronomiari, fisikari eta matematikari izena eman zitzaien, txanponak sortu ziren eta kulturaren oinarriak finkatu ziren. Baina Nicola jaio zenean, iada gerraren erdian bizi zen; Izan ere, Egipziarrek eta Greziarrek Erromatar inperioa erortzea nahi zuten.

Momentu horretan, Erromatar inperioak munduaren %80 okupatzen zuen, eta Egipziarren haien inperioa konkistatu nahi zuten. Nicolari txiki-txikitatik gustatu izan zitzaion gerrateen mundu hori eta gainera haren aita gladiadorea zen eta hura bezelakoa izan nahi zuen. Handitu zenean, halaxe egin zuen.

23 urterekin haren hitza bete eta gladiadore bihurtu zen. Nicolak urte asko pasa zituen gerran eta tarte horretan Erromatarrek, ia inperio guztia galdu zuen, baina hildako guztien gaineratik Nicola geratu zen, bizirik; Horregatik, buruzagi izendatu zuten eta, gainera, aldaketa handi bat egite lortu zuten, bizimodu aldaketa bat italiar guztientzat.

Nicola tronura iritsi zenean, beste herrialdeetako buruzagiekin hitz egin eta adostasun batera iristea lortu zuen; gerratea gelditzea!

Horren ondorioz, garaiaren hasieran garatzen hasi zire gauzak mundura zabaldu ziren, Erromatar inperioak bizirautea lortu zuen eta inperiora bakea bueltatu zuen. Orduz geroztik, Erromatar inperioak bizirik jarraitzen du Nicola Rossi-ri esker.

-A zer nolako istorioa! Nondik atera duzu?

-Nire birraitonaren liburu batetik atera dut. Zeozer gehiago behar duzu?

-Ez ez, eskerrik asko!

-Agur Martin!

-Agur!

Egilea:

June Aramendi Garcia

ZER GERTATUKO LITZATEKE ERROMATAR INPERIOA ERORI EZ BALITZ?

Bazen behin Julio Cesar izeneko gizon erromatar bat. Bere ametsa mundu osoko agintea edukitzea zen. 405. urtean Erromako agintea lortu zuen eta bere ametsa betetzeari ekin zion. Erromako armada ezagutu eta bere seme Antonio Cesar armadako buru jarri zuen. Ondoko herrialde txikiak konkistatuz asi zen: herrialde batera joan, bertako armada guztia akatu eta Erroma handitu egiten zen; horrela etengabe. Jada mundu erdia konkistatua zuen; hau da, Afrika eta Europa osoak baina oraindik Asia falta zitzaion eta bertan bere aurkaririk gogorrena zegoen Xiao Baojuan eta bere iparraldeko txina. Erroma eta Txinaren arteko gerra hasi bezain laster Julio Cesarri minbizia diagnostikatu zioten eta ospitalera joan beharra izan zuen. Erromak diru asko eta armada oso ona zuen, baina txinatarrek ere bai-. Hortaz, gerra inoiz baino luzeagoa zijoan eta erromatarrek Asterixi eta Obelixi laguntza eskatu zieten. Asterix eta Obelixek laguntza onartu eta eta Txinatar guztiak hil zituzten 5 minututan. Gerra amaitu bezain laster ospitalera joan ziren Julio Cesarri agur esatera, hiltzorian baitzegoen. Hiltzeko 15 minutu falta zirenean eta jada agurtzen ari zirenean Asterix konturatu zen salda magiko pixkat gelditzen zitzaiola eta Julio Cesarri ematea pentsatu zuen. Segituan sendatu zen. Denak pozik zeuden, baina Asiaren beste zati guztia falta zitzaien konkistatzeko. Asterix eta Obelixen laguntzaz erraz lortu zutena. Ospatzeko afari bat egin zuten denak batera bertan oilaskoa, fruta, haragia etab zeuden. Tripa bete ondoren denek oihu egin zuten – Ave Cesar! Cesarrek bere ametsa bete zuen: 20 urteko lanaren ondoren mundu osoa bere menpe egotea. Hortik urte gutxitara Julio Cesar hil egin zen, baina bere seme Antonio Cesarrek hartu zuen bere lekua eta aitak lortu zuena mantendu zuen.

Egilea:

Oier Adurabarrena Antia



ZER GERTATUKO LITZATEKE COLONEK EZ BALU AMERIKA AURKITU?

1492. urteko abuztuaren 3 a da, ni nire lana betetzen ari nintzen Huelvan, Cristobal Colonei laguntzen. Minutu batzuk barru nabigatzera joan behar ginen, bitartean Colonei jarraitu genion. Lehenengo merkatu batera iritsi ginen, merkatuan gauz batzuk erosi zituen adibidez: mapa handi bat, iparrorratz bat eta niretzako eguneroko bat eta luma bat bidaia idazteko. Ondoren, portura iritsi ginen, leku horretan arrantzale asko zeuden eta herritar asko guri itxaroten. Pausa horren ondoren, Santa Maria, Pinata eta Niña barkuak nirekin Colonekin itsasoratu ziren. Une horretan -Berdin dio zer ari den gertatzen, zuk idazten jarraitu behar duzu- esan zidan Colonek. Nik kasu egin nion eta idazten hasi nintzen, bidaian ontzigintzari eta burdingintzari iburuz gauz asko ikasi nituen.

Bat-batean Colon entzun genuen diarka: -Ekaitz erraldoia dator gure noranzka!- esan zuen Colonek. Nik berari kasu eginda idazten jarraitu nuen horrekin hil egin behar banuen ere. Ekaitzak harrapatu gintuen, olatuak handitzen hasi ziren eta guk ezin genuen ezer ez egin, hortaz noranzkoa aldatu ziguten. Colon oso haserre zegoen eta bere logelara joan zen azkar batean. Ni ia barkutik erori nintzen baina idazten jarraitu nuen.

2 asteren ondoren, hotza susmatu genuen eta lurralde hotz batera iritsi ginen, Colon oso nahastuta zegoen gainontzekook bezal. Lurralde hortan animalia berri berri batekin egin genuen topo eta Colonek hartz polarra izendatu zuen eta lurraldeari asmatu? Nik jarri nion izena!
Hortik aurrera lurralde hori Antartika deitu nuen.

Hortik aurrera Espainira itzuli eta oso famatuak bihurtu ginen eta diru eta urre pila lortu genuen. Nik hortik aurrera inoiz, baino hobeto bizi izan nintzen nire familiarekin.

Urte batzuk ondoren egunerokoa museo batetan oso famatua egin zen, eta miloika pertsona etortzen ziran nire bidaia entzutera.



ZER GERTATUKO LITZATEKE CRISTOBAL COLON

AMERIKARA HELU EZBALITZ?

Aro modernoan kokatzen gara, Cristobal Colon izeneko kapitaina hil zen Amerikara heltzear zegoela bere tripulazioarekin zuzenki; eskorbutu gaixotasunaz. Orduan Portugesek eta Gztelarrrek Amerikara tropak bidaltzea erabaki zuten. Portugesen aldetik Magallanes kapitain gaztea zihoan buru nagusi bezala eta Gztelarren aldetik Elkano Getariako kapitaina zihoan espainiar tripulazioaren agintari.

Portugesak eta Gztelarrak garai hailetan oso gaizki konpontzen ziren baina bi kapitainek aurrez elkar ezagutzen zuten lagun onak ziren.

Gztelar tripulazioa 1507ko otsailaren, 2an atera zen Getariako portutik hiru egurrezko itsasontzietan, 160 marinel ziren: beren artean burgesak,merkatariak eta nekazariak. Bitartean Portugesen itsasontzietan ura sartzen zenez eta azken mmentuko konpoketen ondorioz 6 hordu beranduago atera ziren portutik.

Hilabete pare bat pasa eta gero marinel batek Elakanori honela esan zion - Zer da hori? - Hori portugesen itsasontzi bat da. Esan zuen haietako batek orduan kainoiak kargatzear zeudela Elkanok buruaz ezezkoa egin zuen buruaz ; izan ere, berak bazekien bertan bere lagun magallanes zegoela, orduan portugesen itsasontzia gerturatu ziren. Elkano eta Magallanes hizketan hasi ziren, biek erabaki zuten Amerika batera konkisttuko zutela eta gero Elakano euskalduna zenez lurak Euskal Herriaren eta portugesen artean banatzea erabaki zuten, baina berailek bazekiten Elkanoren itsasontziko gehiengoa Gztelarrak zirela horduan Gztelarren itsasontzia hondoratu eta Elkano portugesekin joan zen.

la ia Amerikara iritsi zirenean indijena batzuk arkuekin eta lantzekin portugesen itsasontzia erasotu zuten eta orduan bi eguneko boka handia hasi zen . Azkenean Portugesek irabazi eta lur hartu zuten orduan azteka bisitatzera joan ziren, baina iritsi zirenean mallekin eta incekin bilduta zeuden. Orduan bi kapitainek nongoak ziren kontatu zien eta gero opari bezala patatak eta kakoa eman zizkieten. Tripulazioak Amerikan egun batzuk zeramatzala pla bat zuten bertako tribuei traizioa egin eta lurak berailentzat hartzeko. Hurrengo goizean sorpresaz harrapatu eta gutxinaka lurak hiru hilabetez borroka egin ondoren amerikako lurak hartu zituzten. Gero Elkanok Euska Herriaren aldea artu eta Magallanesek beste erdia. kontaktzen da tripulazio portugeseko jende asko bertan bizitzen geratu zela. Handik aurrera Amerika erdian euskaraz hitz egiten hasi ziren eta beste erdian portugesez bertako hizkuntza indijenak desagertzen joan ziren gertaera honengatik.



Zer gertatuko litzateke Colonek Amerika ordez Australia deskubrituko balu?

1476. Urtean Cristobal Colon izeneko ume bat bizi zen bere jaioterrian, Genovan. Colon, etxe txiki batean bizi zen bere familiarekin. Colonek amets bat zuen, bere ametsa ezagutzea zen, baina bere gurasoek ez zioten Genovatik ateratzen uzten.

Bitartean Espainian, Juan II.a, Aragoikoa, (Nafarroak eta Aragoiko erregea) Isabel (Gaztelako erregina) eta Abu I-Hasan (Granadako erregea) Tuteran bilduta zenden. Hirurek Espainia handitu nahi zuten eta mundua ezagutzera joateko norbait bilatzen ari ziren. Egun horietan ez zuten inor aurkitu eta denak amore emateko zorian zenden. Azkeneak, Italiara joatea erabaki zuten.

Genovara iritsi, eta portuan Cristobal Colonekin elkartu ziren:

- Kaixo, mutiko, nola duzu izena?
- Cristobal colon deitzen naiz.
- Mundua ezagutzera joan nahiko zenuke?
- Bai, noski!!!

Hirurak oso pozik jarri ziren eta Colonen gurasoei kontatzera joan ziren.

- Bai, zein da?
- Ama, Colon naiz.
- Amak etxeko atea ireki eta susto ederra hartu zuen.
- Zeintzuk zarete?
- Espainia osoko errege-erreginak gara.
- Zertara etorri zarete nire etxera?
- Zure semea mundua ezagutzera eraman nahi dugu.
- Nire semea? Ez, ez eta EZ!





-Mesedez, ama!!-eskatu zion colonek.

-Bueno, baaaale.

Denak oso pozik jarri ziren eta Getariara bueltatzeko bidea hartu zuten.

Getariara iritsi eta Colon ostatu batean gelditu zen. Hurrengo egunean Colon mundua ezagutzera joango zen!!!

-Colon!! Esnatu!!

-Banoaaaa.

Colon ostatutik atera eta Getariako portuan itsasontzi erraldoi bat zegoela ikusi zuen eta aho zabalik gelditu zen. Han Isabel, Juan eta Abu l-Hasan zeuden Colonen zain.

Goizeko 12ak inguruan, Colon Getariatik atera zen eta Europatik eskubialdera abiatu zen. Nahiz eta mundu guztiak ezkerraldera joateko esan. Egun askoren ondoren, Colon lurralde ezezagun batera iritsi zen eta han bizi zen eta jendeak, "Australia" izeneko lurralde batera iritsi zela esan zioten.

Han pare bat aste pasa eta Colon Espainiara bueltatu zen. Dena kontatu eta berriro Australiara bueltatu ziren errege-erreginekin batera. Han, Australian bizi ziren denak ahorkatu eta Australia, Espainiaren parte bihurtu zen.

Maialen Esteban



ZER GERTATUKO ZEN RÓMULO AUGUSTO

ENPERADOREA IZAN EZ BALITZ?

Bazen behin, udarako goiz batean, Erroman, Rómulo Augusto esnatu zen. Enperadorea zenez bere inperioa altxatu beha zuen, eta egun hori aukeratu zuen dena hasteko.

Urte asko zeraman inperioa handituz eta handituz, baina hilabete batean dena hankaz gora joan zitzaion eta bere lagun enperadoreari deitu zion. Berak Maximus izena zuen eta bere laguntzaileak Pantomino zen.

Egun batzuk egon ziren hirurak hizketan, inperioa berriz aurrera eramateko baina erabaki zuten guztia ezin zioten inori ezer esan dena ondo ateratzeko.

Dena prest eduki arte ez ziren hasi behar, orduan behar zen denbora itxaron behar zuten. Egun haietan Pantominok Maximusekin hitz egin zuen eta inperioa altxatzeko modu egokia ez zela esan zion, inperioa beste modu batean altxatu behar zutela horrela egiten bazuten dena hankaz gora joango zelako berriro. Konkretuki esan nah ziona zen Augustorekin lan ez egitea eta lana bere bizar egitea. Baina Maximusek ez zekien zer esan eta ez zekien zer egin, baina Pantominok galdera bat egin zion.

-Zer gertatuko zen Rómulo Augusto enperadorea izan ez balitz?

Eta gu biok inperio hau altxatuko bagenu, ez zen ezer ez gaizki aterako

Ba bai, hori ere egia da. -Erantzun zion Maximusek

-Azkenean Augustorekin lan ez egitea erabaki zuten eta bere bizkar egin zuten lana. Pantominok dena planeatua zuen, ezer ez hankaz gora joateko, esklabotzak lagunduko zien, Augusto beraien planean ez sartzeko.

Urteak pasa ondoren, inperioa asko handitu zuten, Augusto konturatu zenerako, Pantominok eta Maximusek dena prest zuten.

Beraiek bazekiten Augusto hankaz gora jartzen saiatuko zela, orduan, esklaboei Augusto bigilatzeko esan zien.

Egunak pasa ondoren, Augustoamorrus gau batean, Maximus eta Pantominoren gazteluan sartu zen, gazteluan sartzeko bide bat zegoen eta bide horretatik joatea pentsatu zuen, beran pentsatzen zuen bide hori ez zuela inork ezagutzen. Gazteluan sartzerakoan, esklabo batekin topo egin zuen, baina zorrea eduki zuen esklaboa lo zegoelako, baina aurrera jarraitu eta zapla! Erori egin zen, eta esklaboak harrapatu egin zuen.

Gertatu zena eta gero Augustok kartzelan bukatu zuen.

AMERIKA

1492ko abuztuaren 3an Kristobal Kolon deitzen zen gazte bat aspertu egiten zen. Orduan bere izozkiaren makiltxo hartu eta ideia bat bururatu zitzaion, makiltxo asko hartu eta itsasontzi txiki bat egiten hasi zen. Jendeari makiltxoak eskatu eta itsasontzi txiki bat egiten hasi zen. Ordu batzuk eta gero itsasontzi txiki bat zuen eta itsasoaren beste aldean zer zegoen jakiteko esperantzarekin pala bat hartu zuen. 2 hilabete pasatu ziren, baina bat-batean olatu handi bat etorri eta itsasontzia hondoratu egin zen, haiekin batera kristobal hil egin ze. Handik urte batzuetara Juan Sebastian Elkano deitzen beste gazte batek bere aitonaen ideia berdina eduki zuen.

Oraingo honetan makiltxo bikoitza erabiliko zituen, oraingoan handiagoa zen, berarekin janari gehiago eraman zuen eta bere laguna Magallanes eraman zuen. 2 hilabete pasatu ondoren janari gabe gelditu ziren, baina 2 aste pasatu zirenean lur berde bat ikusi zuten. Orduan itsasontzia alde batera utzita igerian joan ziren. Iritsitakoan emakume oso jator batek aurkitu zituen eta herriko plazara eraman zituzten, han ez zekiten ingelesez hitz egiten orduan zeinu hizkuntzaz komunikatu ziren, Herriko jendeak denetarik eman zieten: Janaria, ura, erropa, lo egiteko tokia... dena oso desberdina zen eta orduan moldatzea kostatu egin zitzaion.

Herriko jendea talde txikitan elkartzen zen eta ez zuten erlazio handirik izaten, baina Elkano eta Magallanesen iritsierarekin denak inoiz baina elkartuago egon ziren. Denborarekin beraien hizkuntza (Euskara) irakasten hasi zen eta handik 10 urtetara Euskara Amerika guztitik zabaldu egin zen, Elkano munduko agintaria bihurtu eta gizon oso dirudun bat izatea lortu zuen.

Baina bukatzeko bere azken bidaia egin eta Getaria bueltatu zen bere bizitzako azken urteak han pasatzera



felis. Pellentesque
velit lacinia egestas
diam eros tempus arcu, nec
vulputate augue magna vel
risus. Cras non magna

senectus et netus et
fames ac turpis ege
ac magna. Maece
dolor, vulputate
accumsan id, fe
Pellentesque
felis. Pellente

ha
egestas. Proin
ny pede.

Zer gertatuko litzateke...

Zer gertatuko litzateke ez balitz sua asmatu?

Duela 2 millio urte



Euskal herrian tribu bat bizi zen eta talde horretako buruzagia Urki izena zuen. Egunero oso goiz esnatzen zen ehizatzaera joateko, beti-beti oreinak edo bisontek ehizatzen zituen, mamutak ez, bere ehizarako tresnek ez zutelako beraien azala urratzen, izan ere; tresnak egurrezkoak ziren.

Negua iritsi zenean hotz handia egiten zuen eta ume, heldu gehienek gaixotzen ziren, horren ondorioz Urki pentsatzen hasi zen. Paseo bat egitea bururatu zitzaion eta konturatu zen animalia gehienak errefuxiatuta zeudela, mamutak izan ezik eta bazirudien ez zutela hotzik pasatzen eta galdetu zen “zer gertatuko litzateke gure arropa mamut azalarekin egingo bagenu?”. Kobazulora iristerakoan, makil bat hartu eta zorrotzen hasi zen silex batekin eta konturatu zen harria oso zorrotza zela eta makila baino gogorragoa. Bururatu zitzaion harria makilari lotzea.



Ehiztari guztiak bildu zituen bere ama berria aurkezteko eta bere plana esateko (mamutak ehizatzea). Ez zeuden denak ados seguru ea planak funtzionatuko zuen. Hala ere, bideari ekin zioten. Mamut familia bat aurkitu zuten eta larru nahikoa zegoen talde guztiarentzat. Ezkutatu ostean, Urkik erasotzeko deia egin zuen eta mamutei irabazi zieten. Tresna berriari esker, hortik aurrera ez zuten hainbeste hotz pasa neguan arropa berriari esker.

8.000 urte ondoren, sua asmatu zuten Neolitoan Urki izeneko mutiko bat.



Irene Minerba Pérez



Zer gertatuko litzateke

Amerika aurkitu ez balitz?

Bazen behin k.o 1463 ean Italian dagoen Genova hirian Cristobal Colón izena zuen ume bat. Cristobal txiki txikitatik oso ume kurioa zen hark 12 urte zituela Genovan janaria eskasa bihurtu zen. Handik 29 urte pasatu zirenean janaria askoz eskasagoa zen eta Cristobali ideia bat bururatu zitzaion.

-Mundua esploratzera joango naiz!

Barku bat hartu eta bere bidaiari hasi zuen. Handik astebetara konturatu zen ur gabe geratzen ari zela,

-LAGUNDU!!!

Gaua iritsi zen eta Cristobal beldur handiarekin ohera sartu zen hurrengo egunak zer espero zion jakin gabe. Gaueko 5:00aldera mugimenduak somatu eta esnatu egin zen.

-Zer dira mugimendu horiek?

-Ai ama zurrumbilo batean nago!!

Gutxinaka barkua hondoratzen ari zen baina ez zuen indarrik oso goiz zelako barkutik salto egin eta igerian Karibeetako irla batera iritsi zen. Harrituta geratu zen leku berdea zen, laua, ur asko, zuhaitz handiak, eta erdian aintzira handi bat ikusi zituen. Han, pertsona batzuekin elkartu zen.

-Zer ari zara zu hemen?

-Zurrumbilo batean nengoen eta...

Dena kontatu zien, momenru hartan Cristobal eta "Paco" lagun handiak bihurtu ziren. Aste bete pasa zuten batera eta hark utzitako barku batekin bere bidaiari jarraitu zuen. Itsasoak azkar eramane zuen beste herrialde batera Espainiara. Han, atxilotu egin zuten bere aberastasuna ezkutatzegatik. Handik urte betera Genovara itzuli zen 1493 zuzenki janaririk ekarri gabe baina oso pozik zegoen esperientzia berri bat bizi zuelako eta Paco ezagutu zuelako.

*Hala bazan edo ez bazan sar dadila
kalabazan eta atera dabila Genovako plazan!*

Nahia Murgiondo





Zer gertatuko litzateke metala asmatu ez balitz?

Bazen behin, 13 urteko ume bat, Erik Uer deitzen zena. Namabian bizi zen (Afrikan). Garai hartan, herrikka gehienak harresiz inguratuz egoten ziren, baina, goiz hartan erasoketa bat egon zen beste herrialde baten alde. Erraz puskatu zituzten paretak... herri barrura sartzeko. Eraso horrek sarraski handia izan zuen eta 2 pertsonak biziraun zuten. Zorionez, beraien arteko erlazioa ona zen.

Hurrengo egunetan, ondoko herrira joatea erabaki zuten. Behar zituzten gauza guztiak hartu eta bidaia hasi zuten. 4 orduko bidaia luze bat egin ondoren, ondoko herrira iritsi ziren. Bertan, ezagun bat ikusi zuten Txon Sagur zena. Txon Sagurrek, bere lagun taldera gonbidatu zituzten. Erik uerrek baietz esan zuen eta biak lagun taldera sartu ziren. Talde hori ehizaria zen eta metalezko tresnekin ehizatzen zuten. Metala hainbeste erabiltzeaz, ordea desagertu egin zen.

Hurrengo egunetan ez zekiten zer egin, metala asko erabiltzen zutelako eta ez zegoelako. Urrengo egunetan, harriekin... gauzekin, tresna desberdinak sortu zituzten, baina, ez ziren hain erabilgarriak. Ehizarako, arazo bat zen animala gutxigo ehizatzen zituztelako eta janaria gutxigo zegoelako. Pix-kanaka materiala lortzen joan ziren (harriak, egurrak...) eta tresna on bat egin zuten. Janaria ez zegoen lehen bezala eta kontrol gehiagorekin jaten zuten, baina, gosez egoten ziren.

Geroago, natura hobeto zegoen, animala gutxigo hiltzen zituztelako. Arboletatik fruituak hartzen hasi ziren eta janaria soberan edukitzen zuten. Erropak, animalien azalarekin egiten zituzten (hartzanarekin, ardianerakin...) eta beste arazo bat zen, baina, arboletako hostoekin hasi ziren egiten eta ez zen arazo handia. Azkenean, bititza hortara ohitzen joan ziren eta ia ez zuten notatzen metalaren falta.

Jon Salaberria



ZER GERTAUKO LITZATEKE SUA ASMATU EZ BALITZ?

Ahots batzuk entzuten ziren bat batean. Ni poliki-poliki hurbiltzen hasi nintzen, zuahitz arko zeuden eta iluntzen hasita zegoen. Kobazulo sakon bat ikusi nuen, gehiago gerturatzerakoan ahotsak handiagoak egin ziren, oso izututa negoen eta gainera nire tribuarengandik urrundu eta galduta nembilen.

-Baina nola gertatu zen dena?

Kaixo, Habub izena dut eta Homo erektus tribuaren ondorengoa naiz. Nire lagunak Erukbub eta Litubub dira, jailo jailo ginenetik ezagutzen ditut eta batera kobazulorik onena derkubritu genuen. Nire gurasoak tribuaren aguntariak dira eta paretetan marrazten edo zuhaitzetako sagar goxoak biltzen ditut beraiekin.

Egun batean bufalo talde bat ikusi nuen eta korrika batean joan nintzen besteei abisatzera, jarraian harrizko eta egurrezko lantza batzuk hartu eta ehizatzerara joan ginen.

-Buelatu gara eta gainera bost bufalorekin!!! Denak garraxika.

Afaltzeko ordua iritsi zen eta Erukbuben gurasoak janaria prestatzen hasi ziren, harrizko mahaira hurbildu eta bufaloak jaten hasi gunen.

-Baina zer zapore txarra duen!!! Esan zuen Erukbubek.

Noski zapore txarra izango zutela gordinik zeudelako; baina, beraiek ez zekiten hori.

Gau oso hotza pasa zuten, beraien arrokekin estaltzen hasi ziren, baina hala ereberotzeko zerbait gehiago beharko zuten. Hurrengo egunean, bost bufaloren ilearekin jantzi batzuk egin genituen eta geroago Erukbub eta Litububekin jolastera atera nintzen, zelai eder batera sartu gunen, fruta eta janari asko zegoen denetarik hartu eta etxera itzuli ginen. Jateko bankete erraldoi bai izan genuen, hau goxoa zegoen bestea ez bezala.

Iluntzen eta hozten hasi zen. Kobazuloan geunden gure larruzko arrokekin baina hotz gehiegi eguten zuen eta gainera elur maluta batzuk ikusi genituen. Ordu bat pasa eta dena zuri zuria zegoen; nire aitak horrela esan zuen:

-Bihar goizean lurralde epel batera abiatuko gara, baina orain lo egiteko ordua da. Denak lotara joan ginen, goizean gauza guztiak larruzko zaku haundi batzuetan sartu eta beste lurralde batera abiatu ginen. Egunak pasa genituen ibiltzen eta oso nekatuta nengoen, momentu batean eseri egin nintzen pixkat deskantsatzera baina lotan geratu nintzen eta gainera besteek ez ninduten ikusi ere egin; hau da, aurrera jarraitu zuten. Esnatutakoan bakarrik negoela ikusi nuen eta norantzarik gabe ibiltzen hasi nintzen. Esperantzarik gabe, baina bat batean... ahotzak entzun ziren.




Metalik gabe

bazen behin familia bat hiru ume zituena. Ume horiek txabola zahar eta txiki batean bizi ziren. Egun batean Joanes mendira joan zen eta pikorrez osatutako bloke bataurkitu zuen; bloke horri ostiko bat jo zion eta hankan sekulako mina hartu zuen. Hori ikustean blokea hartu eta etxera eraman zuen eta bere ama oso pozik jarri zen apurt ezina zen objektu bat aurkitu zuelako, baina arazoa ez zekitela nola urtu beste itsura bat edukitzeko zen.

Bere ama pentsatzen egon ondoren ideia bat bururatu zitzaion. Amak orain dela aste bete herrixka batean eztanda bat egon zela eta eztandak beroa ematen zuela esan zutela gogoratu zen. Orduan Joanes eta bere bi nebak (Ager eta Mikel) mendira joan ziren eta jolaste ari zirela Mikelek harri bat bota zuen eta beste harri batekin talka egitean txispa batzuk sortu ziren. Denak harrituta zeudela Joanesek egur baten ondoan berdina egin zuen eta eztanda berotsu bat sortu zen.

Hiru umeak harrituta amaren gana joan ziren gertatu zena azaltzera. Amak hori entzutean txabolan zituen abere guztiak saldu eta Mirandaola izeneko lantegi bat sortu zuen eta bere helburua diru gehiago irabaztea zean, baina ez zekitena zen zein izen jarri eztanda horri eta blokeari. Eztabaidatzen denbora asko egon ondoren bi izen aukeratu zituzten "Sua" eta "Burdina". Orduan txabolari "Mirandaola burdintegia" izena jarri zieten eta bertan buztinezko labe handi batzuetan suarekin burdia urtu eta itxura ezberdinak ematen zizkieten. Material hori ehizarako erabiltzen zen.

Herrixkako jendeak hori jakite-andenak Mirandaolara joan ziren eta urte askoren ondoren Mirandaolako jabeak aberatsak egin ziren eta diru horrekin Mirandaola txabola lantoki handi batean bihurtu zuten eta handik urte batzuetara munduko lantokirik handiena bihurtu zuten eta hainbeste lanekin ezin zutenez, jendea kontratatatu zuten lana murrizteko.




ZER GERTATUKO LITZATEKE ZERAMIKA EDUKIKO EZ BAGENU?


Gasteiz k. a. 5000. urtea

Egun batean Gugru, Rarra eta ni (Jiji) paseo bat ematera joan ginen. Animalia asko ikusi genituen, beraz, lantza (puntadun tresna) modukoak egin eta ehizatuu egin genituen. Herrixkara itzulitakoan gurasoekin bazkari erraldoia eduki genuen. Eguna ahaztezina izan arren dibertigarria ere izan zen. Beraz, egunero egiten hasi ginen. Momentu horiek oroitzeko ehizarako erabiltzen genituen lantzak gordetzen hasi nintzen. Gutxira Grugru eta Rarra berdina egiten hasi ziren. Hilabeteak pasa ahala txabola oroigarritz (antzaz) berea zegoen eta zoritxarrez ez genekien zer egin haiekin.

Egun batzuk pasa ziren eta ideia gabe geunden. Egunean bertan gurasoek oroigarri gehiago ekartzea debekatu ziguten, baina noski guk paso egin genuen eta ezkutuan sartzen hasi ginen.

Aste bat pasatu zen eta txabola hain betea zegoen gurasoak ohartu egin ziren. Beraz, gurasoek hitz egiteko bildu ziguten eta bi aukera eman zizkiguten. Lehena oroigarri guztietaz desegitea zen eta bigarrena gordetzeko toki bat aurkitzea.





Hirurok ados jarri ginen eta bigarren aukera hautatu genuen. Pentsatzeko leku egoki batera joan ginen, herrixkako dantza erritualera. Dantza erritualak bukatutakoan ideia gabe jarraitzen genuen, beraz, buru makur txabolarantz abiatu ginen. Iritsi eta jarraian ideia bat bururatu zitzaidan. Ideia txaboletako paretetan zuloak egin eta bertan gauza gogokoenak gordetzea izan zen. Nire ideia famatua egin zen garai zoragarri hartan eta, gainera, nire ametsa jarraituz ehiztari profesionala egin nintzen, laster zuek izango zareten bezalaxe.

-Bueno hirukote lo egitera joateko ordua da, eta ez ahaztu nire istorio interesgarria belaunaldiz pasatzea.

-Noski baietz, ama! Hiruron artean zure istorioa belaunaldiz pasatuko dugu...

-Zer egingo nuke zuek gabe... Oso harro nago zuetaz!

Egilea: Alaia Zubia



Zer gertatuko litzateke armak ez balira existituko?

Baziren behin, 1923ko neguko goiz batean Erroman, Zeus erregea eta Fermin. Zeus erregea zenez, bere gaztelua aurrera eramane behar zuen, eta egun hori behar zuen gaztelua konpontzeko.

Hilabetea bukatu zenean dena kakaztu zuen, ez zuen ezer egiten alperra zelako. Horregatik; luri lagunari Gutun bat idatzi behar ziola esan zuen. Zeus erregea Aner erregearekin haserretu zen. Egunak igaro egin ziren, eta Anerrek Zeusei kañonarekin abisu bat eman zion. Zeusek Herritarrei ekintza bat proposatu zien, proposamena armak egitea zen. Ondoren, herritarrek materiala gaztelura eramane zuten.

Bi hilabete ondoren, herritarrek Aner eta Zeusekin haserretu ziren. Herritarrek plazan elkartu eta adostu zuten armak ez egitea. Ondoren, herritarrek plazara joan ziren eta kexa bat jarri zuten.

Guerra ondoren Zeusek erregea izateari utzi zuen. Erregea utzi eta nekazaria bihurtu zen. Zeus egunero goizeko 8:00etan esnatzen zen. Ferminek entzun zuenean Zeusek tronua utzi zuela triste jarri zen eta negarrez hasi zen, eta apaiza izatea aukeratu zuen. Fermin kristaua zenez apaiza izatea nahi zuen.

Zeusek nekazariei janaria lapurtu egiten zuen egunero gauean afaltzeko. Zeusen laguntzaile bat konturatu zen norbait janaria lapurtzen zegoela, beranduago Zeus lapurtzen ikusi zuten. Egunak pasatu zirenean Zeuseri bihotzekoa eman eta hil egin zen



zer gertatuko litzaiteke

Erdi Aroan Metalik gabe?



Bazen behin gaztelu bat, Santo Domingo de la Calzada izeneko herri batean. Bertan erregea bizi zen bere emaztearekin Jose Manuel eta Juana izenez ezagunak. Jose Manuelek anai bat zuen Miguel Angel. Jose Manuel oso aspertuta zegoen eta bufoi bat eskatu zuen. Bufoia tontakeri asko egiten hasi zen, baina bat batean erregearen ontzi bat bota zuen. Erregea asko haserretu zen eta bufoia plazara eraman zuen, erregeak ukabilkada bat eman zion aurpegi guztian. Bufoia lurrera lurrera erori zen eta ostikada bat eman zion tripa guztian. Bufoia hil egin zen eta erregeak bere azalarekin txamarra bat egin zuen. Beste alde batetik, Pedrok, herriko pertsona batek, Aita ziegan zuen eta handik atera izan nahi zuen. Orduan, gauean kalabozora gerturatu zen. Kalabozoko egurrezko hesia bere hankarekin apurtu zuen. Preso guztiak korrika hasi ziren eta Pedro bere aitarekin elkartu zen. Presoak mendira joan ziren. Erregea lo zegoen eta soinu batzuk entzun zituen eta lehiotik begiratu zuen, preso guztiak ihes egiten ikusi zituen. Orduan bere arropa jantzi eta beraien bila joan zen. Erregea konturatu zen bakarrik ezin zuela ezer egin momentu hartan herriko jendea batu zuen eta beraiengana gerturatu ziren. Borroka hasi zen ukabilkadak, ostikadak... Ordu bat eta gero herriko jendeak irabazi egin zuen, baina erregea hil egin zen. Familiari notizia kontatu zieten. Negarrez hasi ziren eta anaiak preso guztiak erretzea agindu zuen. Juanak eta Miguel Angelek erretzen ikusi zituzten gorputz guztiak. besarkatu egin ziren eta Miguel Angel agurtu egin zen eta bat batean sutara bota zen.

Zer gertatuko litzateke metala inoiz existitko ez balitz?

Duela 1600 urte inguru Iberiar penintsulako Regnum izeneko herri batean, Theo izeneko mutiko gazte bat bizi zen. Theo erregearen semea zen eta Igandero trukeak egitera ateratzen zen nekazari eta arrantzaleeki. Theok janaria eskatzen zuen, arropa eta tresnak trukatzuz.

Egun batean, anakin erregea hasarre eta Visigothorum konkistatu nahi zuen. Anakin bere armada prestatzen hasi zen. Egurrezko ezkutuekin eta harrizko ezpatekin. Bere armada prest egonda, Visigothoramera abiatu ziren. Theo soldadu bat zen eta armadaren agintaria. Visigothoramera iristeko gutxi falta zenean, hango erregeak ikusi egin zituen eta bere defentsak prestatzen hasi zen. Theo, armadaren agintaria zenez, iristerakoan "Gerratera" esan eta beraien gaztelua puskatzera joan ziren. Visigothorumeko defentsak oso onak ziren eta Regnumko soldaduak ezin izan zuten ezer egin, beraien armada txikitzen joan zen eta Theo geroz eta nekatuago zegoen.



Visigothorumeko erregea, nazkatuta, atera egin zen. Theok bera ikusi eta lehena izan zen erregearengana joaten, baina... Erregeak Theoren burua moztu eta agintari gabe utzi zuen armada, soldadu gabe gelditzen joan ziren. Visigothorumeko erregeak zaldi bat bidali zuen Regnumera. Zaldiak, harrizko ezpata bat zuen bizkarrean Theoren buruarekin eta han egongo zirela egun batzuetan zion paperezko mezu bat ere bai. Anakin erregea, nolabait armada gabe gelditu zenez, beraien aukera bakarra ihes egitea zen, eta hala izan zen, ihes egin zuten Regnumetik.

Visigothorumeko erregeak, bazekien ihes egingo zutela eta beraien atzetik egon ziren egunak eta egunak, azkenean, aurkitu egin zituzten eta Regnumeko herriarekin gelditu ziren.





KOMIKIAK

GENOVA, 1476



Kaixo, Cristóbal Colón naiz eta nire ametsa, mundua ezagutzera da.

Zoririkarrez, nire gurasoek, ez didote Genovatik irtezen uzten.

BITARTEAN GAZTELAN...

Erregeak, Gaztela handitu hasi nola.



Guk ere bai



Goazen erandua ezagutzera joan nahi duen norbait bilatzera!

BAI!!!



Bilateen hasi ziren baina...

EZ DUGU INOR AURKITU!!!



Hiruak Genovara joan ziren

Kaixo, mutiko, nola dertzen zara?

Mundua ezagutu nahi dugu?

Cristóbal Colón

BAI!!!




Hiruak Colonan etxera joan ziren

Nor da?

TOK TOK TOK

Ama, Colón naiz.



Baina norrek zarete?

Gaztela, Aragoi, Nafarroa eta Granadako errege-erreginak gara.

Zertara etorri zarete?

Zure semea mundua ezagutzera etorri nahi dugu.

NOSKI EZETZ!




Mesedez ANA!!!



Bueno baiale.

Aupa!! Nire ametsa batuko dut!!!



Lauzok Getariara Joan eta Colón ostatu batean gelditu zen.





Maialen Esteban eta Ager Camino

Jabub baso erdian zegoen bakarrik baino ahots batzuk entzuten ziren urrunean.



Urte bat lehenago...

Kaixo, ni Jabub naiz eta nire familiarekin ekintza asko egiten ditut adibidez sagarrak bildu eta kabazuloetan marroztu.



Egun batean bufaloak ilusi zituzten urrunean. Besteek abisatzeera joan ziren eta ezkernean...



Bufaloak jaten hesi ziren baina ez zuden espero bezalakoak



Gauetan hotz asko egiten zuten eta ez zuten ezer bero tekeko.



Lehenengo gauetan hotz asko paze zuten eta bufaloekin jentzi berriak egin zituzten.



Jolastera joan eta zelai eder batekin topo egin zuten bertan barazki asko zeuden.



Orain laruzko arropak zituzten baina elurretan hasi zen dena zuri zuri a zegoen eta horduan...



Beste lurralde batera initsi ziren.








Oso nekatuta zegoen eta eseri egin zen baina lotan geratu zen eta gainera bere tribuak ez zuten ikusi jarraitu zuten.





**EZ NI GABE
JOAN DIRA**

Ahots batzuk entzuten ziren.








İşareler: Ane Calico Uranga
İllustratörler: Irene Minerva Berez



K.O. 400. urteq



Arial semea
berarein eraman du...



30 urte geroogo...

Baizen behin Genova izeneko hiri, batean une bat...



handik aste betera...



4 urte



Gaua iritsi zenean...



irila batean iritsi zen garbeen...



batu bat hartu eta bidaiari hasi zuten.



Goiareko 5.00etan...



5 Egunetara



